

ERAKUNDEAREN DATUAK

1. Erakundearen izena:	Guggenheim Bilbao Museoa
2. Sektorea:	zerbitzuak
3. Langile kopurua:	96
4. Webgunea:	https://www.guggenheim-bilbao.eus/eu
5. Erakundearen jardueraren deskribapena: (produktu eta zerbitzu nagusiak, merkatua, bezero motak...):	<p>Arte modernoa eta garaikidea bildu, zaindu eta ikertzea, eta Artearen Historiaren testuinguruan ikuspegi desberdinetatik eta publiko zabal eta anitzarentzat ikusgai jartzea, Guggenheim Museoen Sarearen funtsezko osagai eta Euskal Herriaren bizitasunaren sinbolo den aldetik arkitekturaren obra enblematikoaren esparruan artea eta adierazten dituen baloreak ezagutarazten eta arteaz gozaten lagunduz.</p> <p>Guggenheim Bilbao Museoa nazioarteko museo sare batean barruan jarduten duen kultur-erakundea da. Sarean lan egitearen sinergieztan onura hartzen du museoak, bildumak eta bestelako baliabideak partekatzen ditugulako eta proiektuak elkarlanean taxutzen ditugulako; betiere, egoitza bakoitzak bere nortasun banakoa galdu gabe.</p>

Harremanetarako datuak

Solaskidearen izen-abizenak:	Nerea Virto Gabilondo
Helbide elektronikoa:	NVirto@guggenheim-bilbao.eus
Telefonoa:	944359027

PRAKTIKA ONAREN AZALPEN LABURRA

1. Praktika onaren titulua:	Artitz dokumentazio-plataforma
2. Praktika onaren azalpena: Zer da? Zertan datza? Nondik dator? Zeintzuk dira onurak, lortu diren emaitzak?	<p>2018an Guggenheim Bilbao Museoak Artitz dokumentazio-plataforma aurrendaria aurkeztuko zuen.</p> <p>Museoak 1997 urtetik ondu duen arte- eta hizkuntza-ondarea biltzen du Artitzek, Eusko Ikaskuntza erakundeak egindako dokumentazio-lan xeheari esker. Tresna argi eta erabilerraz honen bitartez, Guggenheim Bilbao Museoak publikoaren esku uzten ditu eduki horiek.</p> <p>Plataforma Museoaren webgunean sartuta dago —urtero 2,5 milioi bisita jasotzen ditu urtero—, eta diseinu garbi eta erakargarriaz gain, erraz eta modu bisualean nabigatzeko aukera eskaintzen du. Halaber, haren edukiak hainbat mailatan konfiguratuta daudenez, erabiltzaile espezialista nahiz amateurak baliatzeko moduko tresna da Artitz: arte eta hezkuntza arloetako profesional eta ikasleentzako bereziki erabilgarria izango den kontsulta-lanabesa.</p> <p>Plataforma nahiz edukien trataera dokumentala erabilera eta efizientzia lehenetsiz lantzen da; hala, erabiltzaileak interesatzen zaiona aurki dezake, ahalegin minimoa eginez esperientziarik onena izateko. Informazioaren hierarkia eta haren diseinua optimizatu egin dira erabiltzaileak azkar sar daitezen webgunearen alderdirik garrantzitsuetan, eta aukera izan dezaten horietan sakontzeko, behar edo nahi duten heinean. Hala, Artitzek bilatzaile intuitiboa du, hainbat filtroren bitartez bilaketa zehatzagoak egiteko aukera eskaintzen duena, eskuratutako emaitzen egokitasuna hobetzeko helburuarekin, punta-puntako eduki-plataformen antzera.</p>

PRAKTIKA ONAREN INGURUKO DOKUMENTAZIOA, IRUDIAK, GRAFIKAK...

(Hemen itsatsi tresna/dinamika/praktikaren irudiak, dokumentuak, grafikak, eta abar.)

<https://www.guggenheim-bilbao-artiz.eus/>

The screenshot shows the homepage of the Guggenheim Bilbao Artiz website. At the top, the navigation bar includes the logo 'artiz GUGGENHEIM BILBAO', menu items 'ERAKUSKETAK' and 'ARTISTAK', and a search bar with the text 'Bilatu'. The main visual is a large photograph of the museum's interior, featuring a prominent staircase and a wall with vertical panels that have the word 'PROBOOK' written vertically in blue. Overlaid on this image is the text: 'Ongi etorri Artiz-era, Guggenheim Bilbao Museoko erakusketen inguruko arte moderno eta garaikideko dokumentazio zentroa'. Below this, a smaller line of text reads '4799 dokumentu euskaraz zure esku'. At the bottom of the page, there is a footer with the text 'GUGGENHEIM BILBAO', copyright information '© FMGB Guggenheim Bilbao Museoa, 2018', social media icons for Twitter, Facebook, YouTube, and Instagram, and contact information: '+34 944 35 90 00' and 'informacion@guggenheim-bilbao.eus'.

KUDEAKETA AURRERATUA
EUSKALIT
GESTIÓN AVANZADA



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜÍSTICA